



BARREN

TOKIKOM



# Erretiratuta, adinekoekin boluntario

Joserra Ezenarro

**Makina erremintan diharduen DOIMAK S.A.**  
**enpresa elgoibartarrak honako lanpostuak**  
**betetzeko deialdia egin du:**

# Doimak

⊗ LEHEN MAILAKO OFIZIALEN KATEGORIA DUTEN MUNTATZAILEAK BEHAR DIRA.  
(INGELESEZKO ETA EUSKARAZKO EZAGUTZAK AINTZAT HARTUKO DIRA)

⊗ CNC FRESATZAILEA BEHAR DA.  
(FAGOR CNC EZAGUTZAK IZATEA BALORATUKO DA)

Interesdunak bidali zuen curriculumak [cblanco@doimak.es](mailto:cblanco@doimak.es) helbide elektronikora  
edo 943 740 988 (Claudio) telefonora deitu



**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
*cordonvilarchao@telefonica.net*  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 98 61 62**



Jon Aranao  
Guillermo Torres



Elgoibar  
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Astelehenerdik ostirakera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Lanunbatik: 11:00 - 13:00

*Irakasledegia zerbitzua daukagu.  
Deitu ordua hartzeko.*



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA  
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

**MEKANOSA**  
Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

# ELENA

**ileapaindegia**

**Depilazio Elektrikoa**

San Frantzisko 49 -1      Tel: 943 741 189

**IKASTOLAN, DENOK GARA GU**  
HH 0 (2017an eta 2018an jaiotakoak), otsailetik ekainera  
hasteko, matrikulazio aldia zabalik urtarrilaren 15etik 26ra



elgoibar ikastola



[www.elgoibarikastola.eus](http://www.elgoibarikastola.eus)  
943 744 441

Ordutegi zabala: 7:30-19:30. Jai-zubietan eta oporretan irekita



Barren 25 urte

# Publizitatea, BARRENetik herrirako atea

**B**ARREnek, testuak ez ezik urte hauetan guztietan ondo zaindu behar izan du publizitatea ere, hau baita finantzabiderik garrantzitsuenetarikoa. Horregatik babestu eta mimatu egin behar da. Publizitatearekin ez ezik urtetan publizitatea gurean jarri dutenekin hori egiten saiatu izan gara. Baita herriko denda, enpresa, ikastetxe... beraien publizitatea gurean jartzeko ipini duten interes eta gogoarekin ere.

Hasieratik gurean txoko bat hartu dutenak badaude eta urtez urte gure deiarri ezezkorik eman gabe 25 urte gurekin ematera iritsi direnak eta tokia eskatzera etortzen direnak ere. 30 urte bete zituen Aramburu bitxidendak BARRENen lehenengo zenbakian publizitatea jarri zuenean eta joan zen asteko zenbakian ere ikusi ahal izan genuen denda beraren iragarkia ere. Orduan propagandarik egiteko biderik ez zutenez, eta BARREN hasi zenez, Gabonetan zozketatzen zituzten urrezko erlojuen zenbaki irabazlearen berri emateko baliatzen hasi ziren. "Nori tokatu zitzaion jakitea jendea interesatzen zitzaion eta baita guri ere horren berri ematea, beraz, oso ongi etorri zitzaigun, aldizkaria etxe guztietara iristen baitzen. Orduan zozketa egiten zenean, esaterako, jendeak berriz etorri behar izaten zuen zenbakia jakitera. Orduan, ordea, BARRENen begiratura izan dute aukera, eta hori esaten diegu, hain zuzen ere bezeroei: BARRENen begiratu". Zozketa izan da Aramburukoek BARRENen publizitatea jartzeko arrazoi nagusia eta zozketara jende asko joan arren kazetariok ere, Kabalgatan argazkiak atera eta berandu izan bada ere, urtero egon gara han, orain, poltsikoko telefonoek horrelako gauzak ere erraztu egiten dituzte baina.

Herriarekiko gertutasunak ez ezik langileak eta astekariaren bueltakoak ezagunak izateak konfiantza eman ziela ere esan digute. "Hasiera izanik ez genekien Elgoibarko aldizkaria zer izango zen ere, beste garai batzuk ziren, baina BARRENen zihar-dutenak zirenak zirela jakinda bagenekien zerbait ona izango zela eta aurrera egin genuen".

Aramburu dendakoek orain publizitatea BARRENen baino ez dute egiten ahal duten guztietan. Gabonetakoaz gain, ezkontzetako gehigarrian eta San Bartolome jaietako zenbakian eta tartean beste publizitate bereziren bat baldin badago-edo (Txankakuakoa, esaterako). "Noizbait *Diario Vasco*n edo *Arrate*



*Nekane Iturbe eta Onintza Aranburu, bitxidendako azken eta lehen publizitatea agertu ziren aldizkariak eskutan dituztela.*

*Irratia*n ere egin izan dugu, baina BARRENen beti eta besteetan kentzen joan gara, nahiz eta eskaintza egitera etortzen zaizkigun. Denda txikien etorkizuna beltza da eta egiten dugun apurra herrian egitea hobe".

Beraien denda txikitatik herriko beste denda txiki batzuek jarritako publizitateari ere erreparatzen diote BARRENeko orrialdeetatik, "beste dendetakoei ere begiratzen diegu eta besteak beste jakiten dugu batean edo bestean merkealdiak, aukerak... baldin badaude".

Baina publizitateak ez ezik merkatarietan BARRENen gainontzeko atalek ere badute beren tokia. Aramburun bertan esan digute, "noizbait BARREN dendan edo etxean uzten ez badigute faltan sumatzen dugu eta jakinarazteko deitzen dugu. BARREN falta bada zerbait falta da".

Letra eta irudien kalitatez, testuak txukun, koloreak deigarri... Merkatariek ikusiz gero, iragarkiak egoki atera direla hurrengoan ere jarriko dituzte eta ez euskarazko aldizkaria delako soilik, herrian, itxuraz eta jendearengan eragina izanez funtzionatu duelako baizik. Aramburukoak harriru dira lehen zenbaki hartako irudi gabeko iragarki zuri-beltz hartatik oraingo koloretako deigarrira egon den jauzia ikusita. "Ea hurrengo urteurren batean hasieran bezala egiteko moduan gauden, 60.ean, esaterako", esan digute Aramburukoek, eta ea ba hala den orain arte bezala elkarrekin lan egiteko moduan izan gaitzela.



## Zentrotik periferiara eta periferiatik zentrora

niar komunitate kulturean periferian kokatzen da, ez du boteririk. Nola lotu, orduan, periferia hori eta telebista kate hegemoniko hura?

*“Euskal komunitate kulturean Berri Txarrak bezalako talde batek zentroan du tokia, hau da, indarra du”*

Euskal talde asko nazioarteko periferian ezagun bihurtu badira ere, esango nuke oraindik ere arraroa egiten zaigula, edo behintzat egiten zaidala, gure musikariek Australiako, Japoniako edo Mexikoko lurralde zapaltzea, eta baita kate pribatuek segundo batzuk eskaintzea ere. Euskaraz ari di-

relako agian, guregi sentitzen ditugula lako agian.

Iruditzen zait konplexu bat dugula horrekin, euskaraz ari direnez, euren musikaren kalitatea maila internazionalen baloratzea ezinezkoa-edo dela uste dugula. Euskaraz abesten badute gure zentroan egoteko soilik egiten dutela dirudi, eta gainontzeko komunitate kulturetara iristeko (zer esanik ez haien zentrori) gaztelaniaz, edo are hobe, ingelesez egin behar dutela.

Behin norbaitek esan zuen Beatles taldekoek ez zutela ingelesez abesten jende gehiagorengana hurbiltzeko, euren hizkuntza zelako baizik. Berri Txarrak ere gauza bera egiten du, baina, noski, ez da berdina, ezta? Agian bada garaia guk ere geure hizkuntza gaztelania eta ingelesa bezain baliozkoa dela sinesten hasteko.

**D**uela pare bat hilabete telebistako kate espainol batean berriak ikusten ari nintzela albistegiari amaiera emateko Berri Txarrak disko berria aipatu eta azken bi dekliparen zati bat jarri zuten. Pantailari begira-begira geratu nintzen belarriak euskarazko (infra)soinuz betetzen zitzaizkidan bitartean.

Agian nire gauza izango da, baina ez nituen talde hori eta kate hura lotzen. Euskal komunitate kulturean Berri Txarrak bezalako talde batek zentroan du bere tokia, hau da, indarra du, jende askorengana iristen da. Hala ere, espai-



ARGITARATZAILEA:



**Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR**  
**943 744 112**  
**Publizitatea: 943 743 704**  
**barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**  
**barren@elgoibarkoizarra.eus**  
**www.barren.eus**

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuittzak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloe Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eduarne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA**  
**POLITIKA SAILA**


(Hezkuntza Politikarako Sailburuordejak) diruz lagundua




# 75 urte eta sasoi betean



Eurpean eta lokatz artean jokatu zen 75. Juan Muguerza Nazioarteko Krosa. Emakumezkoen lasterketa nagusian, 3.000 metro oztopoetako proban txapeldun olinpikoa den Ruth Jebetek (Bahrein, 1996) Elgoibarko krosa bere palmaresera kostatuta gaineratu nahi zuela erakutsi zuen 2015eko Munduko Kros Txapelketako irabazle Agnes Tiropekin (Kenia, 1995) izan zuen lehian. Gizonezkoetan faboritoen artean gazteenak ziren bi atletek, Berekak eta Kiplimok, lehia polita eskaini zuten eta Selemon Barega (Etiopia, 2000) gailendu zen esprintean. Mintxeta Atletismo Taldeak eskerrak eman dizkie euren laguntza eskaini duten erakunde eta enpresa guztiei. Antolatzaileen berbetan, haien eskuzabaltasunari esker, "berebiziko arrakasta" izan du aurtengo krosak. "Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko herriari; alde batetik, ekitaldi hori antolatzeko orduan emandako laguntzagatik, eta bestetik, gure herrira krosean parte hartzeko asmotan etorri ziren atleta guztiei egindako harrera bero eta adeitsuagatik. Leku guztietatik zorianak eman dizkigute eta hau Elgoibar osoarekin partekatu nahi dugu", adierazi dute. Elgoibarko herriaren izena, aste betez, mundu osoko kirolaren miran egon dela nabarmendu dute, hedabideak Elgoibarren zer gertatzen ari zen adi egon direla-eta. Edizio berezia eta polita izan dela gaineratu dute. "Eskerrik beroenak luzatu nahi diezkiegu, 75. urteurrenoko batzordea osatu duten pertsona guztiei, beraiek gabe ezin izango genukeelako urteurren hau behar den bezala ospatu. Eskerrik asko baita ere, komunikabideei, ikusleei eta bereziki laguntzen egon diren dozenaka boluntarioei, handiak zarete!". Datorren urtean ere, aurtengoa bezain ona edo hobea izan dadin lanean jarraituko dutela hitz eman dute.







## Pentsioen %0,25eko igoera dela-eta protesta egin zuten dozenaka herritarrek



**A**urtengo pentsioen %0,25eko igoeraren harira protestatzeko elkarretaraztea egin zuten martitzenean Kalegoen plazan dozenaka lagunek. Igoera hori "falsua" dela salatu zuten eta pentsio duinak eskatu.

Pentsioak batez beste %0,25 igota, hileko 2,3 euro gehiago jasoko dituzte pentsiodunek -32,2 euro gehiago urtean-. Gipuzkoako pentsiodunen elkarteak salatu duenez, igoera horrek ez du eragin zuzenik pentsiodunengan, egunero kontsumitzen diren oinarritzko produktuak gehiago igo direlako. Ondorioz, 0,25 hori euro bat bihurtzen da gehienentzat. Espainiako Gobernuak bosgarren urtez jarraian igo ditu pentsioak %0,25, eta hala, soldatak "izoztuta" izan dituztela salatu du Duintasuna elkarteak. "Gero eta gehiago dira pobrezian bizi diren erretiratuak. Gaur egun, oso gutxi dira 1.000 eurotik gora jasotzen dutenak, eta elkartetik gutxienez 1.000 euroko pentsioak eskatzen ditugu, hori baita familia batek bizitzeko behar duena".

Plazan elkartu zirenek ere haserrea adierazi zuten: "Aurpegira barre egitea da %0,25eko igoera", esan zuten emakume batek. "Horrenbeste korrupzio kasu dauden herrialde batean (Espainia) pentsioetara eta osasunera horren diru gutxi bideratzea lotsagarria da", gaineratu zuten beste batek.

### Gurutze Gorriak 77 familian banatu ditu jostailuak

Elgoibarko Gurutze Gorriak jostailu bilketa kanpaina egin zuten Eguberrietan. Kanpainari esker, laguntza beharrean dauden Elgoibarko eta Soraluzeko 77 familiatako 160 umek jaso dituzte jostailuak. Berriak izan dira batu eta banatu dituzten jostailu guztiak eta Gurutze Gorriak lagundu duten herritarrek, dendak eta enpresak eskertu nahi izan ditu. "Bereziki, Danobat, Etxetar, Besa eta Ojmar enpresak nabarmendu nahi ditugu jostailuak erosteko eman diguten diruagatik. Oso pozik gaude herritarrek eta enpresek eskaini diguten arreta eta erakutsi duten eskuzabaltasunarekin, eta, batez ere, jostailuak jaso dituzten haurren irribarreak eman digu bizipoza".

### Mercadonak Lerun Txikin supermerkatua irekiko du urte amaieran

Mercadona saltoki kateak denda berria irekiko du urte amaieran Lerun Txikin. Orain egiten ari diren lanekin 1.500 metro koadroko salmenta gunea eraikiko dute eta Mercadonaren denda efizientearen ezaugarrien arabera izango da. Janari, edari, garbiketa eta animalientzako jatekoen gunek egongo dira bertan. 40 langile arituko dira eta kontratatzerako orduan kontuan hartuko dute besteak beste herrikoak edo gertukoak izatea.

### Sahararako janari bilketa hilaren bukaerara arte

Saharar Ilargi Gorria, Fronte Polisarioa eta Otsailak 27 Koordinakundearen deia erantzunez urtero bezala elikagaien bilketa kanpaina jarri dute abian. Elgoibarko eta Mendaroko boluntarioek, herriko supermerkatuen laguntzarekin, urtarilaren bukaerara bitartean jasoko dituzte elikagaiak Elgoibarren BM eta Eroski supermerkatuetan eta Mendaron Coviranen eta Puxikan. Jasoko dituzten produktuak honakoak dira: arroza, pasta, lekaleak, azukrea, hegaluze eta sardina latak, olio eta konpresak. Beirarik gabeko poteak lehenetsiko dituzte.

### Tripontzia zozketako saria 09550 zenbakiarentzat

Gure Esku Dago egitasmoak eta Kontseiluak Tripontzia Urteberriko Saria zozketako zenbaki irabazlea jakinarazi du. 60.000 euroko sari nagusia Zuberora serieko 09550 zenbakiarentzat izan da eta gainontzeko serieetako baikoitzari 6.000na euro jasoko ditu. Txarrelak Urduñan (Bizkaia) saldu dira.



## San Anton egunez jai kutsu pixka bat laga zioten herriari hainbat ekitaldik



San Anton Eguna eguaztenean izanik eta eguraldiak lagundu ez bazuen ere, egon zen jai kutsua eman nahi izan zion herritarrik. Goizeko jai soinudun kanpaien mezararako deiari erantzun zion hainbatek eta jai berezia izanik mezatan San Bartolome Parrokiako abesbatzaren kantuez gozatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek.

Etexeko txikienek beste modu batera gozatu ahal izan zuten jai eguna. Plazan zein Ikastolako frontoian puzgarriak ipini zituzten eta goizez zein arratsaldean saltoka, txirristaran behera eta makinetan jolasean ibili ziren.

Musika gustuko dutenek, berriz, Maria Sedano abeslariaren eta Mariano Mangas gitarra jolearen doinuak entzun zituzten Herriko Antzokian. Entzule gutxi izan arren, han zirenek musikarien maila ona estimatu zuten, kantu ezagun bat edo beste ere eskaini zuten, gainera. Arratsaldean, erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten aurrean korrika ibili ziren neska-mutilak dultzaineroek lagunduta. Tamalez, ohi baino laburragoa izan zen kalejira, euria hasi zuelako.

Asteburuak oraindik ere izango du San Anton kutsurik beste esparru batzuetan bada ere. Gaur, barixakua, 22:00etan hasita jokatu dira Ikastolako frontoian XXVI. San Anton pilota torneoko finalak. Promesa mailan Carregal-Artola bikotea U. Alberdi-Apezetxearen aurka arituko dira eta seniorretan Atxotegi-Olaizola bikoak J. Alberdi-Aizpururen aurka jokatu du. Zigilu erakusketak ere azken egunak izango ditu asteburuan eta zapatu eguerdian, gainera, opariak jasoko dituzte kolaboratzaileek.

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

**FUB Fernando Urizar Barandiaran**  
R.P.S.: 32/17  
Medikuntza dotore  
Psikiatrian espezialista  
Psikoterapia psikoanalitikoa  
Psikosomatika  
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)  
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)  
furizar1@yahoo.com  
615 715 404

**ECO EIBAR 4D**  
imagen prenatal  
R.P.S. 44340878y  
688 800 800  
Isasi kalea, 17 - EIBAR  
4D ekografietan espezialistak

**NATUR HOUSE**  
Ainara Iriondo Ansola  
GIZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA  
Tel. 943 106 020  
Mag. 677 551 830

RPS 183/12  
**Uzuri**  
optika audio  
Elgoibar  
Tel.: 943 740 359  
Deba  
Tel.: 943 192 192

RPS 271/12  
**ainhoa**  
fisioterapia  
Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar  
943 531 953  
669 565 745

**aldaz**  
hortz klinikak  
RPS233/13  
Tel.: 943 366 377  
San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

**fisio&más**  
Fisioterapia aurreratu eta Kirol Berregokitzea  
Trenbide kalea, 13  
943 740 191 / 667 933 628  
www.fisio-mas.com  
RPS 132/18

**federópticos**  
**ikus**  
RPS 65/07  
San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734

**leku edero**  
hortz klinika  
RPS 171/12  
Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Enparantza, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 530 053

## ▶ JOSERRA EZENARRO NAGUSILANeko ELGOIBARKO ARDURADUNA

# “Adinekoak pozik ikusteak gu ere betetzen gaitu”

Joserra Ezenarrok orain dela zortzi urte hartu zuen erretiroa lanetik, baina bestelako lanetan jarraitzen du. Adina ez da horretarako oztopo, izan ere, oraindik gazte sentitu eta beste batzuegana gaztetasun horrekin iristeko asmoz Nagusilaneko boluntario eta Elgoibarko arduradun da orain dela hiru hilabete-edo. Egitasmo horren berri eman digu jendea parte hartzera gonbidatuz.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

### ◆ Orain dela gutxi hartu zenuen Nagusilaneko arduradun lana Elgoibarren. Nolatan hasi zinen?

Aurreko arduraduna, Miguel Angel Tercero etorri zitzaidan ea prest nengoen galdetuz. Ni aspaldi joaten naiz adinekoen egoitzara izebak han daudelako eta kontua pixka bat ezagututa animatu nintzen, zerbait egin beharra dago-eta. Hala ere, ez da boluntario lana adinekoekin egotea soilik, paperak eta bilerak ere egin behar dira. Hor zeudenek jarraitu nahi zuten Eguneko Zentrorra edo San Lazaro Egoitzara joaten edo irteerak egiten, baina horrelako ardurarik hartu gabe.

### ◆ Jendeak badauka Nagusilanen berri?


Ez dut uste. Nagusilanen entzutea beharbada, baina bueltan egon ezean ez dakite zein lan egiten dugun. Orain Jubilatuaren elkartearen bulegoetan elkartzen gara eta askorentzat, agian, hango atal bateko kideak gara. Urtarrilaren 27an, goizez, King-Kongen informazio mahaia jarriko dugu gure lanaren berri emateko eta jendea parte hartzera animatzeko.

### ◆ Zein da Nagusilanen helburua?

Gaur egun, zahartze demografikoak behar handiak ekarri ditu. Jendea bakardadean dago, egoitzetan, eguneko zentroetan... Beste aldean gaude adinean aurrera joan arren hain zaharrek behintzat ez garenak eta haiei eskaintzeko gaitasunak eta denbora dauzkagunak. Elkar laguntzea da nolabait helburua. Beraien hutsunea betetzeaz gain, guretzat ere ongi dago hori egiteak besteak beste burua aktibo mantenduarazten digulako.

### ◆ Zein motako laguntza ematen diezue?

Protokoloak dauzkagu hitzartuta San Lazaro Egoitzakoekin eta Eguneko Zentrokoekin eta haiek esandakoa egiten dugu; sekula ez hortatik bizi direnek egin beharko luketenik. Orduko batzuetako



laguntza ematen diegu. Mahai jokoetan (dominoan, partxisean, musean...) aritzen gara; egoitzan barixakuetan bingoan eta berbetan. Uda aldean kalera ateratzen ditugu paseatu eta zerbait hartzera. Mintxetara edo Idotorbera (San Pedro) auto berezi batean eramaten dituzte eta han egiten diegu konpainia. Jaiotza mekanikoa ikustera ere joaten gara. Egun berezietan ere lagun izaten gaituzte: Inauterietan, San Bartolome jaietan...

### ◆ Boluntarioek prestakuntza berezirik jasotzen duzue?

Hasieran formazio txiki bat egiten da: ikusten edo entzuten ez duen batengana nola zuzendu edo gurpildun aukian dagoena nola mugitu jakiteko, adibidez. Adinean gora joan ahala (boluntario batzuk 80 urtetik gorakoak dira) zailena gurpildun aukiei bultzatzea da. Batez ere argitzen digute gure lana zein den, profesionalen lanean ez sartzeko.

### ◆ Gaur egun zenbat boluntario zaudete Elgoibarren Nagusilanen?

21 lagun eta gutxi garez lan asko dago. Hiru joan dira orain dela gutxi eta hiru berri sartu. Joan direnek (Miren Urkia, Mari Tere Iraegi eta Niko Osoro) utzi dute adinean gora doazelako eta urte asko eman dituztelako taldean; eta aste honetan, Nagusilanek omenaldia egin die. Gure asmoa da boluntarioen adina jaitea. 70 urtetik gorakoekin aritzen gara eta boluntarioak 48 urtetik 85era bitartekoak gaude. Azken hilabeteotan urtebeteko jaitsiera izan dugu 48 urteko jendea taldera sartuz. Batik bat

jende nagusia sartzen da denbora libre gehiago duelako, baina gazteak sartzeko ez dago inolako arazorik, denetarik behar dugu. Badirudi jendeak beldurra edo errepara diola adinekoekin lan egiteari, beharbada beren burua gazteago ikusi nahi dutelako-edo. Esaten dute umekin lan egingo luketela, baina ez pentsa errazagoa denik. Kostatzen zaio jendeari adinekoengana hurbiltzea, baina gerturatzan dena pozik ibiltzen da gero. Besteak pozik ikustek gu ere betetzen gaitu.

♦ **Adinekoekin elkartzeari zuentzat ere laguntza dela esan duzu. Zergatik?**

Guri ere bizirik mantentzeko bidea irekitzen digulako. Oraindik gazte gaude, eta ezagutza aldetik, gaur egun, 60 urtetik gora dauzkagun asko ere prestatuta gaude. Orain dela gutxi sartu den boluntario batek, adibidez, esan dit bere bizitzan hartu duen erabaki onenatariko bat izan dela Nagusilanen jardutea. Inorentzat inor ez izatea gaixotasun handienetarikoa da gaur egun eta horrek bultzatzen gaitu gu beraiantzat ez ezik gure buruarentzat ere zerbait izatera. Adinekoengana tertuliara joateko egunkariak irakurri eta herriko gauzak jakin beharra dago, burua behintzat argi eduki.

♦ **Eguneko Zentrokoekin eta San Lazaro Egoitzakoekin aritzen zarete.**

Gehien bat bai. Norbait etxean bakarrik egonez gero, eta sendagilearen kontsultara joateko laguntza behar badu ahal badugu joaten gara edo adinekoen batek bandako kontzertura joan nahi badu, esaterako. Badaude laguntza bereziak. Bestalde, Gizarte Mahaiaren ekintzetan ere hartzen dugu parte; adibidez, Arrozen jaietan. Janari bilketan ere aritu gara.

*“Adinekoengana tertuliara joateko egunkaria irakurri eta herriko gauzak jakin behar dira, burua argi eduki”*

♦ **Adinekoek nola hartzen zaituztete?**

Beti ez gara jende berarekin egoten, nahiz eta batzuetan ohiturak berdinegana eramaten gaituzten. Eguneko zentroan, adibidez, gizonezko batzuei musean aritzea gus-tatzen zaie, beraz, dakitenak joan behar dira haiengana. Oso ondo hartzen gaituzte, irrikitan egoten dira gu beraiengana noiz joango eta eskerrak ematen dizkigute. Askoren er-mua logelako lehioa baino ez da eta gurekin elkartzeko beharra izaten dute, beraz, poztu egiten dira. Ni, esaterako, izebak bisitatzer-a

joaten naiz eta ezin izaten naiz irten gainontzekoak agurtu gabe.

♦ **Nagusilaneko boluntarioak denbora librean bestelako ekintza batzuetan ere arituko zarete, ezta?**

Bakoitzak, gutxi gorabehera, astean bi eta bost ordu bitartean egiten ditugu Nagusilanekin. Baina zenbat eta gauza gehiago eduki denbora gehiago ateratzen da. Badira batzuk 60 + egitasmoan daudenak, beste batzuk gimnasia, elizan laguntzen besteak...

♦ **San Lazaron eta Eguneko Zentroan egoten zarete. Aurrerantzean beste nonbait egoteko asmorik baduzue?**

Nagusilanek ez du horren ardurarik, baina gu ere adinean gora joan ahala eta nagusiekin ari garenez, erreparatzen diogu horri. Egoitzetan bizi beharrean etxebizitzetan bizitzekoa modan dagoela dirudi eta kasu horretan gure laguntza etxeetan emango genuke. Bestalde, ea egoitza berria egiten duten. Proiektua hor dago eta taldean hitz egin izan dugu hortaz, baita Nagusilanen bitartez Diputaziora mezuak bidali ere, baina erantzunik ez dugu jaso. Hala ere, uste dugu asmoa hortik bideratu behar dela. Gero eta urte gehiago bizi gara eta jende gehiagok dauka egoitza beharra.

## ‘Zilarrezko zenbakia’, bizitzen lagundu

Adinekoentzako telefono bidezko doaneko arreta zerbitzua da Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarritako *Zilarrezko zenbakia*, horretarako bereziki prestatutako Nagusilaneko boluntarioek zuzenean erantzuten dutena.

Astelehenetik barixakura bitartean 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara egoten dira Nagusilaneko boluntarioak 900 713 771 zenbakian.

Zilarrezko zenbakira deitzen duen jendea oso pozik dagoela esan du Joserra Ezenarrok. “Guk Egoitzako eta Eguneko Zentroko protokoloen arabera egiten dugu lan, baina jende asko dago etxeetan bakarrik aspertu eta buruari buelta asko ematen dizkiona. Beraz, zerbaiten beharra izan edo besterik gabe berbetarako gogoia badute dei dezakete telefono horretara eta hitzez konpainia egiten diete.

Donostiako bulegotik erantzuten dute eta boluntario asko dago han lanean”.

Telefono honen helburua besteak beste hainbat adinekoek bizi duten bakardade eta isolamendu egoerak hautsi edo arintzea da nolabaiteko ziurtasuna eskainiz. Izan ere, adinekoen deiak jasotzeaz gain, beraiek ere egiten dizkiete adineko pertsonen deiak zuzeneko harremana sortuz eta zerbitzuen berri emanez. Gainera, telefono dei horien bidez jasotzen dituzten eskariak Oinarizko Gizarte Zerbitzuetara eta Osakidetzara bideratzen dituzte.

Aurrez aurre jolasean zein berbetan batzuekin eta telefonoz besteekin, adinekoekin ahalik eta gertuen egotea eta hauek pozik mantentzea da Nagusilaneko boluntarioek bilatzen dutena.

## Etxean amaituko du Jon Gurrutxagak Keu Agirretxearekin 'Izanak' bira



Jon Gurrutxagak eta Keu Agirretxeak gaur, barixakua, 20:30ean Herriko Antzokian egingo duten kontzertuarekin amaituko dute *Izanak* bira. On Line argitaratu zuten birari izena eman dion kantua eta hori izan da elkarrekin aritzeko aitzakia. Bira motzagoa -udara arte- izango zela pentsatu arren programatzaileen deiei erantzunez eta biak batera gustura ari zirela luzatu egin zuten eta gaur arte iritsi dira. "Emaitzarekin oso gustura gaude. Aurrez elkarrekin kolaborazioak egin arren, hau izan da batera egin dugun lehen bira eta emaitza ikusita baliteke berriz ere zerbait egitea, baina orain etapa amaitu eta bakoitzak bere kontuetan jarduteko tarte hartuko dugu", dio Jon Gurrutxagak. Keuk disko instrumental bat argitaratu zuen Durangoko azokarako eta Gurrutxaga hainbat kantu grabatzen ari da. Azken emanaldia honetan, elkarrekin gustura jardungo direnez, entzuleek ere gozatu ahal izango dute. Gainera, sorpresatxoren bat izango dela aurreratatu digu Gurrutxagak.

## Alex Berasategi Munduko Argazki Kopako finalaren atarian



Munduko Argazki Kopan hartu du parte Elgoibarren estudioa duen Alex Berasategi argazkilaria azpeitiarrak. Espainiako Argazkilaria Profesionalen Federazioak hemezortzi argazkilariren lanak bidali ditu lehiaketara eta Berasategirena publizitate atalerako bizikleta bati eginiko argazkia izan da, berak gustuko duen moduan kontraste handikoa. Finalerako aukeratu ez duten arren Berasategi gustura dago, argazki guztien maila ona ikusita finalaren atarira iristea beretzat izugarria delako.

## 'Go!azen'-en bi saio domekan Elgoibarren

Telebistan hain ezagun egin den Go!azen telebistaaren antzerki musikala izango da domekan 12:30ean eta 16:30ean Herriko Antzokian. Bi saioetarako sarrerak aurrez saldu zituzten eta jandantik agortuta daude.

## Salgai 'La rosa del azafran' zartzuelaren sarrerak

Barixakuan, urtarrilaren 26an, Sasi-bill elkarte lirikoak *La Rosa del Azafran* zartzuela eskainiko du Herriko Antzokian 20:30ean. Kantu, musika eta hitzek, gizarte maila ezberdinetako pertsonen maitasun istorioak izango dituzte ardatz. Sarrerak Kutxabanken daude salgai 15 euroan (8 euroan Gazte-txartelarekin). Lehiatilan ere salduko dituzte.

## Santa Ageda eskerako Elgoibarko Izarraren deia

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, baserri bati kopia kantuan eskera aterako dira Elgoibarko Izarrako taldeak. 10:00etan Kalegoen plazan abiatu eta iluntzera arte jardungo dute. Koruetan parte hartzeko aurrez izena eman behar da 943 741 626 zenbakira deituta edo [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) helbidera idatziz.

## Elgoibarko dantzariak Auresku eta Soinu Zahar Txapelketako lehen saioan

Legazpin hasi dute Inazio Bereziartua Dantza Eskolako Amaia Sasiain, Jon Etxeberria, Eneko Etxaniz eta Markel Goenagak aurtengo Auresku eta Soinu Zahar Txapelketako liga. Urtarrilaren 28an, Villabonan, Aimar Almortzak eta Markel Goenagak hartuko dute parte. Elgoibarko txapelketa, apirilaren 21ean eta 22an izango da.

## Elgoibarko Triatloi Taldea sortu dute

**D**uela bi urte desagertu zen Urgazi Triatloi Taldeak lagatako lekua betetzera dator Elgoibarko Triatloi Taldea. Herriko triatloi zale gazte batzuen ekimenez eratu dute. "Elgoibarko triatleta asko bere kabuz zebilen probetan parte hartzen, eta elkarri laguntzeko talde baten babesean hobeto moldatu gintezkeela ikusi genuen", azaldu dute Mikel Gurrutxagak eta Iñaki Gabilondok. Batekin eta bestearekin berbetan hasi eta hogeitau lagun inguru batu dituzte taldera, denak gizonetzkoak. Herriko triatloi zale guztiak batu nahi dituzte baina taldera, "23 urtez azpiko gazteak eta emakumeak bereziki", eta eurekin harremanetan jartzera animatu dituzte. "Taldekide izateko ez dago

kirol maila handia eduki beharrik, eta beste kirolen batean federatuta egotea ere ez da arazoa. Mendiko lasterketetan dabiltzan lagunak zein igeriketako maste-rean ibilitakoak ere batu zaizkigu. Jendeak triatloiarekin gozatzea nahi dugu eta triatloietan hasteko gogoz daudenak pauso hori gurekin ematera animatu nahi ditugu", azaldu dute.

Dagoeneko badihardutenentzat taldea lagungarria izango dela uste dute, "kirol garestia delako, besteak beste". Taldeko jantziak ateratzeko asmoa dute eta babesle bila ere badabiltza. Taldera batu nahi dutenek Facebook eta Instagram sare sozialetan dituzten kontuen bidez jarri daitezke beraiekin harremanetan. Baita ere



elgoibarkotriatloitaldea@gmail.com helbidera idatzita edo 688 871 328 telefonora deituta ere. Otsailean webgunea sarreratzeko asmoa dute.

### Hiru elgoibartar Eibartrans-Gobike taldean



Eibartrans-Gobike Master mailako txirrindulari taldeak denboraldi berrirako osatu duen taldea aurkeztu zuen zapatuan Elgoibarren, taldekide babesle nagusiak herrian kokatutako enpresak baitira. Iaz moduan, hiru txirrindulari elgoibartar daude taldean: Ramon Garcia, Iban Gonzalez eta Iñigo Lariz. Master mailan diharduen Gipuzkoako talde bakarra da eta txirrindulari gipuzkoarrek, nafarrek eta bizkaitarrek osatzen dute taldea. Denboraldi honetarako helburua Euskal Herriko Master mailako lasterketen egutegia osatzea da, baina Euskal Herriko mugetatik kanpo jokatzen diren proba esanguratsuenetan ere hartuko dute parte, besteak beste, Tarazonako Challengean, Tafallan, Soriako eta Gaztela eta Leongo itzulietan edo Espainiako txapelketan. Azken txapelketa horretan, meritu handiko seigarren postua lortu zuen iaz Ramon Garcia elgoibartarrak, Master 30 kategorian. Otsailaren 10ean hasiko da denboraldia Laudion.

### Bostehun ume baino gehiagok hartu dute parte Mugertza krosari buruzko marrazki lehiaketan

Mugertza krosari buruzko marrazki lehiaketako irabazleak jakitera eman dituzte antolatzaileek. Joan den zapatuan egin zuten sari banaketa, John Ngugi, Carmen Valero, Mariano Haro eta Ezequiel Canario atleta ohien parte hartzearekin (argazkian). Aurtengoan 6 eta 12 urte bitarteko 509 ume parte hartu dute. LH1 eta LH2koen artean Jon Trevinok lortu zuen lehen saria eta Mikel Etxabek bigarrena. LH3 eta LH4koen kategorian Alain Diezek aurkeztutako marrazkiak lortu zuen lehen saria eta Ibon Makazagarenak bigarrena. Azkenik, LH5 eta LH6koen artean Ane Dominguezek jaso zuen lehen saria eta Danel Rodriguezek bigarrena. Marrazki sarituak eta sarituak izan gabe onenen artean aukeratuak, Olaizaga kiroldegian jarriko dituzte ikusgai urtarilaren 29tik otsailaren 25era bitartean.



**LANA.....****Eskaerak**

Sukaldari laguntzaile lanerako eta umeak edo helduak zaintzeko prest.  
☎ 602 047 812

Pertsona helduak zaintzeko prest. Edozein ordutegi. Interna moduan ere.  
☎ 632 729 261

Pertsona helduak eta umeak zaintzeko prest, astean zehar (orduka) eta asteburuetan.  
☎ 612 493 242

Lan egin nahiko nuke. Malgutasun osoa ordutegietan.  
☎ 632 949 742

Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko edo umeak zein nagusiak zaintzeko.  
☎ 631 049 059

Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Malgutasun osoa.  
☎ 697 961 386

Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko, aste barruan arratsaldeetan eta asteburuetan egun osoz, gauetan ere, nahi izanez gero.  
☎ 652718719

Pertsona helduak zein umeak zaintzeko prest, interna moduan ere. Esperientzia eta erreferentziak dauzkat.  
☎ 631 343 232

Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Orduka. ☎ 662 041 526

Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Orduka. ☎ 632 952 947

Neska prest umeak zaintzeko. Malgutasun osoa ordutegietan.  
☎ 632 392 251

Zaintza edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Goizez edo arratsaldean. Esperientzia. ☎ 655 094 780 (Silvia)

Pertsona helduak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta erreferentziak dauzkat.  
☎ 631 620 344

Asteburuetan pertsona helduak zaintzeko prest nago. Erreferentziak dauzkat.  
☎ 648 039 187

Pertsona helduak zaintzeko prest. Interna aritzeko gertu. ☎ 615 580 970

Garbiketa lanetarako eta adineko pertsonak zaintzeko prest. Orduka aritzeko gertu. ☎ 603 237 932

Garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan eta orduka aritzeko prestutasuna.  
☎ 629 872 270

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Gauzez eta interna aritzeko prestutasuna. ☎ 688 738 823

Adineko pertsonak zainduz egingo nuke lan. ☎ 622 554 873

Adineko pertsonak zaintzeko prest.  
☎ 633 563 546

Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Orduka, gauzez edo ospitalean egoteko prestutasuna dut.  
☎ 602 490 595

Emakume euskalduna etxeko lanak egiteko eskaintzen da. Goizez.  
☎ 687 114 707

Umeak edo nagusiak zainduz edo garbiketara lan egiteko prest nago. Goizez, arratsaldean zein orduka.  
☎ 675 965 130

Pertsona helduak eta umeak zaintzeko prest, egunez edo gauzez. Ikasketak eta esperientzia. ☎ 671 989 434

Pertsona helduak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Interna moduan ere. Esperientziarekin.  
☎ 689 571 882

Dendetako saltzaile, bulego edo etxe garbitzaile zein ume edo adinekoen zaintzaile lanetan aritzeko prest nago.  
☎ 629 903 512

Emakumea adinekoak zaintzeko prest.  
☎ 685 263 228

Pertsona helduak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. Orduka.  
☎ 638 338 816

**ETXEBIZITZAK.....**

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.  
☎ 677 259 560

Trastelekua duen etxebizitza alokairuan hartuko nuke Elgoibarren.  
☎ 602 490 595

Elgoibarko erdigunean etxebizitza alokagai. 3 gela, sukalde-jangela eta koxka. 3. pisua igogailurik gabe. 550 euro hileko eta hilabete bateko fiantza. Interesatuak deitu.  
☎ 688 650 060 (Laura)

**BESTELAKOAK.....**

Klase partikularrak emateko irakaslea behar dut, emakumezkoa. DBH 2. Mailako irakasgai guztiak irakasteko.  
☎ 616 379 009

Lehen mailako Batxilergo teknologikoko klase partikularrak emango lituzkeen pertsona baten bila nabil.  
☎ 637 413 731

**administradores**

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas  
Euzko Administrazioaren Kontabilitate Erakundea



**ROSA M<sup>a</sup>  
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Gure garaje komunitatean bada ibilgailu bat normalean gune komunetan aparkatu ohi dutena. Hainbat aldiz, enpresa pribatu bateko garabia ekartzeko deitu dugu, baina ezezkoa ematen dio ibilgailua gune komunetik kentzeari edo lekualdatzeari, baldin eta jabea bertan ez badago. Nola konpondu dezakegu arazo hau?**

Higiezinen jabeek edo maizterrek maiztasunez inbaditzen badute garaje plazen jabetza eskubidea edo ibilgailuak garajeko gune komunetan aparkatzen badituzte, Prozedura Zibilaren Legearen araberrako epai-akzio bat bultzatu ahal izango da. Horren helburua izango da demandatuaren aurkako sententzia bat lortzea gune komunetan zein beste jabeekideen aparkalekuetan ibilgailua utzi ez dezan. Kondenatuak epaia bete ezean derrigorrez betearaziko zaio. Gainera, eragindako kalte-galerak ordaindu beharko ditu. Bestalde, bere jokabidea errepikatuz gero, epai-agintearen desobedientzia delitupean eroriko litzateke.

**Aholkua: Jabe komunitateak Jabetza Horizontalaren Legearen araberrako neurriak hartu ahal izango ditu. Beraz, presidenteari, administratzailearen bitartez, jabe edo maizterri eskatu beharko dio jokabide desatsegin hori uzteko. Horrela egiten ez badu batzar batean adostuko dute ekintza judizialak hastea bere jarrera bertan behera laga dezan.**

Enpresa kolaboratzailea: **NORFO** P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak **Estanis**, bihar, larunbata, 9 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiarik, bereziki Danelak.



Zorionak **Jon**, mutil haundi! Ilgandean, hilak 21, 4 urte. Muxu handi pila bat familiarik, bereziki arreba Nahiak.



Zorionak **Hai-zea**, urtarrilaren 23an 5 urte potolo beteko dituzulako. Muxu pila bat familia guziaren partez.




Zorionak printzesa, astelehenan 4 urte beteko dituzulako. Familia guziaren eta bereziki Mararen partez.



Zorionak **Martin**, atzo, urtarrilak 18, 4 urte. Zorionak eta patxo potolo bat familiarikoen partez!



Zorionak **Noa**, ostegunean 6 urte bete zenituelako! Muxu potolo bat etxeko guzien partez.



Zorionak aittita **Paulo** eta **Nere**, urtarrilaren 15ean 84 urte bete zenituelako eta urtarrilaren 30ean 7 beteko dituzulako. Etxeko guzien partez.

## LAN-POLTSA: BARREN ASTEKARIA



Ordezkapenak egiteko lan poltza osatzen ari gara (kazetaria, komertziala eta maketatzailea). Interesatuak curriculum vitae-a helbide honetara bidal dezakezue:

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

Kalebarren plaza, 2. - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**BEHERAPENAK**  
eguzkitako betaurrekoetan eta graduatuetan

**%10** etik

**%50** era bitartean

# club no+velloelgoibar

**PREMIUM**Bazkide

**URRE**Bazkide

Matrikula	50€	50€
Kuota	60€	35€
Depilazioa	Gorputz osoa	3 zona
Fotorrejubenezimendua	%20 beherapena	Sesio 1
Beste Tratamenduak	%20 beherapena	%20 beherapena
Ordutegia	Egun osoa	Egun osoa

📍 Bernardo Ezenarro 2, behea  
T. 843 630 011 - [elgoibar@nomasvello.com](mailto:elgoibar@nomasvello.com)



**no+vello**  
elgoibar

## 19 BARIXAKUA

**18:30-20:30** Odol-ematea. Elgoi-barko Odol Emaileen Elkartearen. Osasun zentro ondoan.

**20:30** Kontzertua: Jon Gurrutxaga eta Keu Agirretxea. Herriko Antzokian.

**21:30** Bideo foruma: *Hysteria*. Loredi Salegik gidatua. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Haizea.

**22:00** San Anton pilota txapelketako finalak. Ikastolako frontoian. Antolatzaileak: Lagunak Pilota eskola eta Udal Kirol Patronatua.

## 20 ZAPATUA

**11:00** Filatelia Elkarteetako Euskal Federazioaren lehen asanblada. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**13:00** Seilu erakusketako kolaboratzaileei opariak banatzea. Kultur Etxean. Erakusketa ikusteko azken eguna: urtarrilak 21(12:00-14:00/18:30-20:30).

**22:00** Idi-dema. Etxetxo (Arroa) eta Jimenez (Urdaneta). Sigmako probalekuan.

## 21 DOMEKA

**9:20** Mendi ibilaldia. Kilimon, lur azpiko urak. Irteera geologikoa Inma Murgertza hidrogeologoaren azalpenekin. Irteera: 9:20 tren geltokian.

**12:30 eta 16:30** Antzerki musikala. *Goazen*. Herriko Antzokian.

## 22 ASTELEHENA

**11:00** San Bizente Eguneko meza. Aurretik prozesioa. Azkue (San Roke) auzoko ermitan.

## 25 EGUENA

**14:30-16:30** Hitzaldia: *Ez dut zigorri nahi*. Hizlaria: Nerea Mendizabal. Mendaroko udaletxeko areto nagusian. Antolatzaileak: Arno guraso elkarte, Hartueman eta Mendaroko Udala. Izena emateko idatzi helbide honetara: arnoformakuntza@gmail.com.

**18:00** Gurasoen formakuntza: Babes faktoreak garatzen dituzten heziketa-gaikoak. Gaztelera. Hizlaria: Alberto Ruiz de Alegria, Norberako arduraduna. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzaileak: herriko ikastetxeetako guraso elkarteak eta Udal Ongizate Saila.

## 26 BARIXAKUA

**20:30** Zartzuela. *La Rosa del Azafran*. Asociacion lirica Sasibill. Herriko Antzokian.



### Ines Mendikute Muguruza

"Txarriduna"

2018ko urtarrilaren 10ean hil zen, 88 urte zituela.

**Zure falta sumatzen dugu, baina gure bihotzetan zaude.**

Txarridunako kuadrilla



### Pedro Isasti Gagor

2018ko urtarrilaren 15ean hil zen, 79 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
19 BARIXAKUA	20 ZAPATUA	21 DOMEKA	22 ASTELEHENA	23 MARTITZENA	24 EGUAZTENA	25 EGUENA	26 BARIXAKUA
Egunez * Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez * Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez * Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego

\* Fernandez:  
Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00**  
La Fuente  
Sostoa kalea, 10 (Eibar)  
943 254 410

Zinea (Herriko antzokian)

'Star wars: los ultimos jedi'

20 Zapatua, 19:00 eta 22:15 (VOS)

21 Domeka, 19:15

22 Astelehena, 21:30



**Zuz.:** Rian Johnson. **AEB, 2017. Iraupena:** 150 min. **Generoa:** zientzia fikzioa. **Aktoreak:** Daisy Ridley, John Boyega, Adam Driver, Oscar Isaace.

Aurreko atalari jarraituz, jedi bihurtzeko ikasten hasiko da Rey, Luke Skywalker maisuarekin. Irakaslea kezkatuta dago gazteak indarrarekin duen lotura ikaragarriarekin. Erresistentzia, bitartean, lanean ari da Kylo Renen aurkako borrokari ekiteko. bitartean, lanean ari da Kylo Renen aurkako borrokari ekiteko

'Land of mine'

Ongarri

25 Eguena, 21:30



**Zuz.:** Martin Zandvliet. **Danimarka, 2015. Iraupena:** 100 min. **Generoa:** drama. **Aktoreak:** Mikkel Boe Folsgaard, Joel Basman, Laura Bro, Louis Hofmann y Roland Møller. II. Mundu Gerra amaituta

guerra mundial, soldadu alemaniarren pelotoi bat preso dago Rasmussen sarjentu daniarraren zaintzapean. Taldeak milaka mina nazi desaktibatu beharko ditu hondartza Daniako hondartzak garbi utziz. Tentsio handiko lan arriskutsua, benetan.



*Pedro Mari Esnaola Irusta*

"Musillo"

2018ko urtarrilaren 16an hil zen, 88 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Eire Vila

## Jone Olaizola



**E**rotismoa eta sentsualitatea. Ikusten den eta ikusten ez denaren arteko jolasa. Kitzikatu eta plazera sortzen digu eta sexurako grina. Erotismoa ederra da zeuk aukeratuz gero, askatasunean biziz gero, baina gurearen moduko gizarte heteropatriarkaletan ez da horrela izan. Gizonak feminitate ez naturala eraiki du. Eraikitako feminitate horrekin lotuta, itxura fisikoarekiko mandamendu hauek, indar handia dutenak: titizorroak, makilajea, mugikortasuna kentzen diguten takoiak, mugikortasuna kentzen diguten arropa estua, gorputzeko ilea kentzea, panpinen gisa hitz egitea, edota panpin puzgarri gisa erabiltzea. Gainera, eraikitako feminitate hori ez da gu balioesteko izan, kontrakoa baizik. Mugatu egin gaitu eta askatasuna kendu digu, dekorazio gisa erabili gaituzte, bi-

garren mailan, men egiteko eta zerbitzatzeko, gizonen beharrrak asetzeko. Tamalez, hori da emakumeok jasotakoa, beti eder eta beti prest egon behar dugula, eta gustagarri. Eta nik diot edertasuna balioestea polita dela, eta jolasa polita dela askatasunez aukeratzen duzunean, behartuta sentitzen zarenean, ordea, ez da hain polita, jolasaren ordez joko ankerra bihurtzen da, eta joko horretan emakumeoak galtzaile atera garelakoan nago. Dena den, norbaitek esango du hauek kontu zaharrak direla, eta gaur egungo emakumeok askeak garela gure gorputzaren eta bizitzaren inguruan erabakitzeke. Askeak bagara, ausartak garelako da, erasotuak izan eta defendatu garelako, gutxietsiak izan eta burua altxa dugulako, gure kontraesanetan erori eta altxa garelako, ikasitako desikasten saiattu garelako, lotsagabe izan garelako, elkar babestu dugulako. Askatasuna hitz potoloa da emakumeontzat.

*“Gizonak feminitate ez naturala eraiki du”*



## Margarita Oregui Osoro

**Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko  
gure bihotz barreanean  
eramango zaitugu betiko.**

2017ko urtarrilaren 10ean hil zen, 94 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

## Juan Jose Mendikute Zabala

**Urtebete, urte luzi, urte gogorra.  
Danborradiaz batea jun ziñan,  
Trinidadeko lehen elur malutak galdu zuz;  
senar, aitatxo eta atxitxe zoragarrixe ixan za.  
Zuk lagatako hutsune ezin bete,  
geure gogun ta bixotzin beti.  
Matxe-matxe.**

*Etxekuk*

2017ko urtarrilaren 20an hil zen, 59 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, urtarrilaren 21ean, 12:30ean Mendaroko Azpilgoetako elizan. Joango zareteneoi alde zurretik eskerrak.

VI. URTEURRENA

## Mari Karmen Gabilondo Etxabe

2012ko urtarrilaren 19an hil zen, 58 urte zituela.

**Maite ditut  
maite  
geure bazterrak  
lanbroak  
izkututzen dizkidanean  
zer izkututzen duen  
ez didanean ikusten uzten  
orduan hasten bainaiz  
izkutukoa...  
nere barruan bizten diren  
bazter miresgarriak  
ikusten.**

*(Joxean Artze)*

*Etxekoak*





*Baserriz baserri, kantuan eta eskean*

## ELGOIBARKO IZARRA SANTA AGEDA BEZPERAN

- Otsailaren 4an, igandea, 10:00etan elkartuko gara Kalegoen plazan.
- 21:00ak arte jardungo dugu kantuan eta eskean. Aiastiako soziedadean afalduko dugu, eta bazkaltzeko tartea ere hartuko dugu.

**Urtarrilaren 31 izango da izena emateko azken eguna:**  
**943 741 626 / [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)**



## 17-18 IKASTURTEA

**Matrikulaldia zabalik**

**Izena emateko epea  
otsailaren 9ra arte.**

**Langabetu, ikasle eta gurasoek  
Matrikula Erdia**

**Bekatzeko sistema ikasturte bukaeran**

**Etor zaitez eta informazio  
guztia emango dizugu.**

**ELGOIBAR: 09:00 – 13:00 / 14:30 - 17:30**

**DEBABE UDAL EUSKALTEGIA**

**Kalebarren plaza, 2 – Tel.: 943 742 731**

**[udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus](mailto:udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus)**

**UDAL  
EUSKALTEGIAK**  
euskara klaseak • clases de euskara

[www.udaleuskaltegiak.eus](http://www.udaleuskaltegiak.eus)

